

2021eko ekainaren 28a, LGTBI+ Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Eguna



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“Stonewalleko erreboltatik dator haria, eta 2021ean, Pasaia hobea lortzeko, ezinbesteko aldarria”

Ez da hilabete igaro Basaurin gazte talde batek 23 urteko gazte bat jipoitu zuenetik, homosexuala izateagatik. Bestalde, 52 urte igaro dira Stonewallen lesbiana, gay, transexual eta, batez ere, trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpenera eta xantaiaren aurrean errebolatu zirenetik, eta berrogeita bi urte igaro dira polizia batek Errenteriako diskoteka batean Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuenetik, trabestia izateagatik. Ekainaren 28 hartan, zehazki, LGTBI+ pertsonak eta kolektiboek Euskal Herriko kaleak hartu zituzten estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatzeko. Oraindik asko dago egiteko, herritar oro, bai Pasaian bai Euskal Herrian bai munduko gainerako herrialdeetan, askatasunez bizitzeko. Hala ere, LGTBI+ pertsonen eskubideetan aurrerapausoak egin dira, besteak beste: sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen legeztatzea, adoptatzeko eskubidea.

Alabaina, gure jendartearen bazterkeria, estigmatizazioa eta indarkeria eguneroko errealitate dira gaur gaurkoz LGTBI+ herritar askorentzat, uste faltsu eta estereotipoetan oinarrituta eta, nola ez, ezezagunarekiko beldurrak eraginda. Gainera, urtebete baino gehiago igaro da pandemiak gure bizitza gogor astindu zuenetik. Informazio eta datu askoren arabera, badakigu jada konfinamenduak LGTBI+ pertsonen aurkako diskriminazio-maila handitzea ekarri duela; haien eskubideak bermatu beharrean, urratuak izan dira, zaurgarritasun bereziko testuinguru batean. Are gehiago, gaur egun krisi sozioekonomiko larria ate joka dugunean, gorroto-diskurtsoak eta erasoak areagotzen ari dira, eta LGTBI pertsona askoren bizi-baldintza orokorrak estutzen eta okertzen ari dira. Hortaz, LGTBI+ pertsonen eskubideen aldeko borroka oraindik ere ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.

Alde horretatik, Pasaian bizikidetzak sustatzen jarraitzeko lanean segituko dugu, batetik, hezkuntza-komunitatearekin sentsibilizazioa, kontzientziazioa, prebentzioa eta eredu berriak lantzen, gure etorkizun diren haur eta nerabeen arteko tratua onartu eta sustatzeko eta haurren sexu-identitatea askatasunean hezteko; eta, era berean, gazteen parte-hartzea eta elkartegintza bultzatzeko. Bestetik, jarraitu egingo dugu kontzientziazioa sustatzen eta herrian LGTBI+ komunitatearen eskubideen alde lanean aritzen diren kolektiboek aldarrikapenak entzun, jaso eta elkarlanerako zubiak eraikitzen eta proposamenak lantzen. Horregatik, maiatzaren 17an adierazi bezala, Pasaia Udalak ondorengo konpromiso zehatzak egikari daitezela lan egiteko konpromisoa berretsi nahi du: legeak baimentzen duen neurrian, eskaerak egitean, herritarrek bete behar dituzten instantzietan gizon-emakume dikotomia gainditzen saiatuko gara; Udalarenak diren eraikin orotan komun komunak ezartzen jarraituko dugu, genero-bereizketarik gabe; eta generoagatiko edo sexu-orientazioagatiko eraso orori erantzun instituzionala emango zaio, kaltetutako kolektiboekin batera lanketa eginda.

Beraz, ekainaren 28ko egun honetan Pasaia Udalak lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, askotariko fobien aurrean, aniztasuna eta bizikidetzak onartu eta sustatzen jarraitzeko, lesbiana, homosexual, transexual eta bisexualen, hau da, LGTBI+ komunitate osoaren, ongizatea ziurtatzearren. Hala, Pasaia herritarrei eskatzen diegu diskriminazio eta indarkeria era guztiak baztertzeko.

Horregatik guztiagatik, aniztasun afektibo sexualaren aldeko borroka guztiona eta egunerokoa denez gero, Pasaia Udalak alkateordetzetan jarriko du LGTBI+ komunitatea sinbolizatzen duen bandera, eta babestu egiten ditu egun honen kariatara antolatutako ekimenak. Eta Pasaia herritarrek ekintza horietan parte hartzea animatzen ditu.

Aniztasunari eutsiz, bizikidetzak hauspotuz, Pasaian ongi bizi.